

Sarrera

Eusko Ikaskuntzaren *Ikastaria* 17 ale honetan, batetik Gazteluetak 2009ko urtarrilean egin zuen Kongresuan aurkeztu ziren lan batzuk biltzen dira (Jasone Cenozena, Keith Kellyrena, Iker Pagolarena eta Pilar Sagasta, Begoña Lobato, Julia Barnes, Ainara Nazabal eta Monika Madinabeitiak sinatzen dutena). Beste lan guztiak Eusko Ikaskuntzako Hezkuntza sailetik egindako deialdira aurkeztu eta aukeratutako lanak dira. Artikulu guzti guztiak ebaluazio prozesu anonimoak igaro ondoren jartzen ditugu irakurlearen eskura.

Aldizkarian bildu diren lanen artean bada loturarik, nahiz eta jatorri askotako eta izaera oso ezberdineko lanak bildu diren. Denak, irakaskuntza alorretik egindako begiratuak dira. Batzuetan, irakas sistema oso baten ikusmira islatzen da lanean, esate baterako, **Djamel Ould**-ek, Frantziako irakaskuntza ertainetan garatu den europar nahiz ekialdeko hizkuntzen irakas sistema interesgarriaren berri ematen digunean, edota, **Itziar Elorza eta Inmaculada Muñoak** Euskal Herriko ikastolen eremuari dagokionez, euskararen sustapena eta elaniztasuna lortzeko eraiki den sistema azaltzen digutenean. Orokorra da ikuspuntua, baita ere, **Felix Etxeberria eta Kristina Elosegik** haur etorkinek eskolari ekartzen dizkioten erronken inguruko lana. Hezkuntzaren maila ezberdinak ukitzen dira lan hauetan: hasi haur eta lehen hezkuntzatik (**Matilde Sainz**) eta unibertsitateko ikasleen hizkuntza gaitasunetara helduz (**Jasone Cenoz, Pilar Sagasta** eta beste edota **Manuela Alvarez** eta besteren lanak lirateke horren lekuko); badira bigarren hezkuntza mailetako ikasleen lanez arduratzen diren lanak ere, **Iker Pagolarena** eta **Elixabete Pérez eta besterena**, esate baterako).

Nolanahi ere lan gehien ardatz didaktiko nagusia, murgilketa edo nahi bada, hizkuntza eta edukia batera irakastearen (CLIL, AICLE, EMILE)¹ inguruko esperientziak, gogoetak eta proposamenak direla esan genezake. Izan ere, eleaniztasunerako eskolak eskaintzen duen baliabide nagusia horixe da; hain berria ez den, baina etengabe aldatzen eta aberasten doan hizkuntzen eta edukien elkarreragite eta bateratze prozesuen bitartez ematen den ikasketa.

1. CLIL: Content and Language Integrated Learning / AICLE: Aprendizaje Integrado de Contenidos y Lenguas Extranjeras / EMILE: Enseignement De Matieres Par Integration D'une Langue Etrangere.

Badirudi, azkenean, ohartu dela eskola (hari buruz hitz egiten dutenak esan nahi dugu) hizkuntza edo hizkuntzak eta ikasgai ezberdinetan banatuta dauden edukiak, ez direla lantzen bananduta, bakoitza bere aldetik, baizik eta hizkuntza bera landuta; ikasi nahi dena berba bihurturik ikasten baita; eta faltsua dela, baita ere, pentsatzea, garai batean eta oraindik ere askok pentsatzen eta esaten duten moduan, aurretik lehenengo hizkuntza ikasi behar dela baliabide modura eta baliabide (hizkuntza) hori ondo ikasitakoan ikasiko direla edukiak edo ikasgaiak, betiere, baliabide hori erabilita. Eduki, ikasgai edo ezagutza bera, ordea, hizkuntzan gauzatzen da eta berbalizatze horretan datza ezagutza ez ezik hizkuntza erabiltzeko gaitasuna ere izatea. Hizkuntza batean nahiz beste batean egin ahal izango da hori, baina edozein dela ere hizkuntza, zentzua erabiltzeko erabiltzen den heinean, hizkuntza bera garatzen ariko gara.

Kezka berdinetik abiatuta sortutako lanak baldin badira ere, askotarikoak dira jorratzen diren gaiak, batzuk unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan arreta jarrita, eta beste batzuk unibertsitatean. Badago hizkuntzaren alderdi diskursiboa hizpide duenik, Alvarez, Muies & Urangarena eta Pérez, Zulaika, Mujika & Muñozarena, esate baterako; edukia eta hizkuntza batera irakasteko bitartekoei buruz hitz egiten digunik era badugu: Sagasta eta bestek; hiru hizkuntzen arteko elkarrenergiaz ari da, Pagola; Elorzak & Muñozak, ikastolen programetan jartzen dute arreta; Cenozek unibertsitateak hizkuntza ezberdinak erabiltzeko eskaintzen dituen aukerez ari da; Kelly-ren lanean jakintza-arloko hizkuntzen berezitasunei egiten zaio begirada zientzietakoa ardatz hartzeko; irakasleek matematika eta hizkuntza batera irakasteko erabiltzen dituzten estrategietan murgiltzen gaitu Sainzen lanak; eta Etxeberria eta Elosegik inmigrazioaren kasua dute mintzagai. Artikulu horiek alfabetitokoki ordenatuta eskainiko ditugu ale honetan.

Hasteko, **Alvarez, Mules eta Urangaren** lanean, arestian esan dugun bezala, hizkuntzaren izaera diskurtsiboa hartzen dute kontua eta ikuspegi horretatik aztertzen dituzte unibertsitateko ikasleen idazlanak; azterketa edo etsamina idatziak, hartzen dira aztergai eta ikasleek darabiltzaten hiru hizkuntzetan (euskara, gaztelania eta ingelesa) nola moldatzen diren aztertzen da. Badirudi, unibertsitatean egon arren idazteko gaitasunak lantzeko beharra ez dela bukatu. Ohar hau ere oso interesgarria da, izan ere, nagusia den hizkuntza-ikusmiran, badirudi behin batxillerra eginez gero jakin behar dela ondo idazten. Horrela, orokorrean. Eta jakina, idazten ikasten, mintzatzen bezala, ez da inoiz amaitzen, baizik eta hizkuntza ekintzak eskatzen digun generoaren arabera, kasu honetan etsamina idatzia, molde hori da landu behar den testuera edo generoa, eta horren ezaugarri diskurtsiboak izango dira hizkuntza-ekintza horiek ongi menderatzeko landu behar direnak.

Cenozen lanak ere unibertsitatean jartzen du arreta. Hezkuntzako beste maila batzuetan bezala, unibertsitatean ere eleaniztasunaren erronkari ekin zaio azken urte hauetan. Hor dago, adibidez, hizkuntzen inguruko plana, euskararen eta gaztelaniaren erabileraz beste hizkuntzen erabilera ere sustatu nahi baita. Kasu honetan euskal ikasleek dakizkiten hiru hizkuntzak unibertsitatean erabiltzeko dituzten aukerez ari da egilea; informatika eta bestelako baliabide anitzak eskura jarri eta erabilaraziz gure unibertsitateko eleaniztasunera egiteko dauden aukerak azpimarratzen ditu.

Murgilketa eta hizkuntzen irakaskuntza bateratua dira **Elorzak eta Muñoak azaltzen dutenaren harira**, Ikastolen eleanitz programaren oinarrian dagoen printzipio nagusia. Ikastolak beti izan du helburu euskaran ardaztutako irakaskuntza, eta eleaniztasuna gaur eguneko gizartearen beharra baldin bada ere, eleaniztasun hori euskaren inguruan ardaztuta bidera daiteke. Xede horrekin ikastoletan ematen hasiak diren urratsen eta plangintzen berri ematen digute egileek artikulu honetan. Eskola eredu eleanitza eraikitzeke ematen hasiak diren urratsak eta aurrera begira egiteko dagoena azaltzen diguten egileek artikulu.

Lehen aurreratu dugun moduan, inmigrazioaren gaia da ardatza **Etxeberria eta Elosegiren** lanean. Gero eta gehiago dira gure eskoletan matrikulaten diren haur etorkinak, gehienetan, gainera, hainbat jatorrizko hizkuntza eta kulturetakoak. Euskal Herriko eskolak baditu bere berezitasunak, eta egile hauek beren ikuspegia eskaintzen digute ikasle etorri berri horiek dituzten zailtasunez eta konponbideez.

CLILen ikuspegiari helduta ere datorkigu **Keith Kellyren** lana. Egile honek bereziki aztertzen ditu jakintza bakoitzaren hizkuntza (terminologiatik haratago doazen hizkuntza berezitasunak), eta kasu honetan natur zientzietako hizkuntzarenak arakutzen ditu. Adibidea esanguratsua da, izan ere ikasmilak goraka doazen heinean jakintza mailak ere proportzioan garatu behar direlako eta garapen horrek eduki edo alor bakoitzak bere espezialitateko hizkuntza ikastea suposatzen duelako.

Djamel Ould-en lanak Frantzia ere eleaniztasuna eskolan sustatzeko garatu diren proiektuetara hurbiltzen gaitu, bereziki estatuko europar hizkuntzen eta ekialdeko hizkuntzen sailetatik (SELO) bultzatu direnak. Programa horien ezaugarriak pedagogikoak azaltzen ditu eta haren jarduerari lotutako zenbait zifra eskaintzen ditu azken urteotan egin diren lorpenak nabarmentzeko. Garatu dituzten baliabide eta materialak, hizkuntzen irakaskuntzaren antolakuntza, e.a.

Edukia eta hizkuntza batera irakastea da baita ere **Iker Pagolak** aztertzen duena, baina kasu honetan bere ikastetxean, hiru hizkuntzen (euskara, ingelesa eta gaztelania) arteko elkarrenergina da aztergai ageri dena, eta bere emaitzen baikortasunak hizkuntzen irakaskuntza bateratuaren printzipioa indartzen du.

Hizkuntzaren izaera diskurtsiboa kontuan hartzeak eragindako lana litzateke **Pérez eta besteren** lanak. **Pérez eta besteren** lanean testu idatzietako puntuazioa aztertzen da. Puntuazioa, jakina, testuaren izaera diskurtsiboa kontuan hartuta ulertu eta landu behar da, eta bide horretatik aztertzen dute egile hauek Gipuzkoako gazte elebidunen zenbait testu idatzien harian.

Unibertsitateari egindako begirada da Sagasta eta bestek ere eskaintzen diguna. Haien lanean aurkezten duten lanean Irakasleen formaziorako ingelesa eta bestelako edukiak aldi berean irakasteko Mondragon Unibertsitatean lantzen dituzten bitartekoak ageri dira

Bereziki interesgarria da **Matilde Sainzen** azterketa haur eta lehen hezkuntzako hiru maistrak matematika eta euskara aldi berean irakasteko

erabiltzen dituzten keinu profesional edo didaktikoen inguruan. Ahozko hizkuntzaren erabilera eta kalitatea askoren ahotan dago azken urte hauetan, eta garrantzi berezi hartzen du gure komunitatea bezalako gizarte-eremu elebidun edo eleanitzen hezkuntzan. Ikasleak ahozkoa entzuten duen arren eta ahoz mintzatzeko gauza den arren, eskolak gutxitan aprobetxatzen ditu, ordea, espazio horrek ahozkotasuna lantzeko eskaintzen dituen aukera guztiak. Aukera horiek hobeto ezagutzeko, Sainzek irakasleen keinu profesionalak eta ikasleek dituzten oztopoak eta egiten dituzten ekarpenen azterketara hurbiltzen da.

Gure ustez, Euskal Herriko irakas sistemak guztiz interesgarria den labo-
rategia eskaintzen digu hizkuntzen irakaskuntzan ikertzeko, eta hemen aur-
kezten diren lanak, gehienak Euskal Herrian kokatuak, hizkuntzen didaktikan
ekin beharreko alor ezberdinen oso adibide esanguratsua osatzen dute. Azken
urteetan asko aurreratu bada ere, oraindik lan helduagoen beharra nabaria
da. Urratsez urrats aurrera egiteko baliabideak eta aukerak eskaintzea izan da
Ikastaria 17 ale honen helburua.

Itziar Idiazabal
Ines M. Garcia Azkoaga